

Aintzat hartzen ez dituztenak

Via Campesinak «planeta hozteko» irtenbideak aurkeztu ditu, baina proposamen horiek COP21eko negoziazioetatik at utzi dituzte

Adrian Garcia Paris
Berriemaitile berezia

Nekazariak bete-betean jotzen ditu klimaren gorabeherak: uholdeek, tornadoek, lehorteek eta beste ezbehar naturalek eragindako uzta galduak milioika familia gosetu uzten dituzte landa eremuetan, lurra uztera behartuak. «Azalean sufritzen ditugu klimaren jipoiak», dio Adam Paine, Londres inguruko nekazariak. Via Campesinako kide da Paine, eta nekazarien bilguneko beste kideekin batera dago Parisen, COP21 bilkuran harira. Izan ere, nekazariak badituzte klima aldaketari aurre egiteko irtenbideak, baina munduko agintarien goi bilkuran ez dute ordezkapenik. Ez hori bakarrik. «Multinazionalak bere egin dute klima aldaketaren aurkako borroka, eta irtenbide faltsuak proposatzen dizkigute. Baztertu egiten gaituzte».

Laurent Pinatelen esanetan, elikadura ohitura berriek nekazaritzaren garrantzia zokoratu egin dute. Nekazaria da Pinatel ere, Confederation Paysanne Frantziako elkarteko bozeramailea. FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen datuak ekarri ditu gogora: garatzeko bidean diren ekonomietan –biztanle gehien dutenak dira–, nekazaritza txikien produktuetatik bizi dira %80.

Paineri ez zaio axola COP21eko herrialdeen arteko lehiak. «Gero eta itxaropen gutxiago dut. Hogei

urtean gauzak okerrera egin dute». Multinazionalak bultzatuta, goi bilkuran lantzen ari diren irtenbideak beldurtzen du: «Nekazaritza klimatikoki inteligen-tea, karbono emarien konpentsazioak...». Nekazarien aurkako erasotzat ditu mekanismo horiek. «Gure baliabideetan oinarritzen dira, guk erabiltzen dugun lurrean eta urean». Paineren arabera, gobernuek ez dute klimaren auzia konpondu nahi. «Industriak herritarren %30 elikatzen du, eta munduko gas kutsakorren erdia baino gehiagoren arduradun da, garraioetan askatutako gas kutsakorrenatik». Hori dela eta, ezinbestekotzat jo du nekazaritza erreforma bat, elikadura burujabetasunaren alde egiteko. «Benetako konponbideak eman ditza-kegu».

Etorkizunerako ildo azaldu du Paine. «Ez dugu hurrengo COP arte itxarongo». Aliantza sareak ehuntzea dute helburu, haien eragina zabaltzeko. «Erradikalizatzeko prest egon behar dugu».

Pinatele jakinarazi duenez, Europan gero eta handiagoa da nekazaritzaren industrializazioa. Ondorioz, nekazari txiki askok ekoizpena utzi behar dute. «Industriek ito egiten dituzte, askotan indarkeria erabilia, gero haiek ordezkatu eta uzta industrialak egiteko».

Langileei batzeko deia

Hain zuzen ere, enpresa handi horien itzalpean egiten ari dira



Parisko Danoneren egoitzan protesta egin zuten atzo, multinazionalaren gehiegikeriak salatzeko. ADRIAN GARCIA

COP21eko negoziazioak, Paineren arabera. «Hitzarmen bat aterako da, eta, dirudienez, konpromisoak ez dira betebeharezkoak izango».

Maria Dacosta Brasil ipar-ekialdeko nekazaria da, eta, familiarekin batera, 24 hektareako eremu batean landatzen du. «Gure eskualdean erdiak gara nekazariak». Dacosta badaki Europan oso bestelakoa dela egoera. «Langileen babes behar

dugu. Hirietako biztanleek batu egin behar dute borroka horretan, merkatuetan nekazaritza produktuak kontsumituz». Lurraren aldeko konfederazio global bat sortu behar delakoan dago Dacosta. «Nekazari eta lurrarekin konprometitutako jende gehiago behar dugu borrokan aurrera egiteko».

Haren jaioterrian nahieran jardun dute enpresa handiek. «Multinazionalen burmuinak Euro-

pan daude, baina atzaparrak hegoaldean». Nekazarien lurra esplotatu zituen meatzaritza konpainia batek, eta haiek erabiltzen zuten ibaiko ura kutsatu zuen. Industria nekazaritza erabilitako pestizidek, berriz, ehunka jaioberrietan deformazioak eragin zituzten. «Hilabeteak egon naiteke kalteak eta mehatxuak zerranduzen». Amaigabea da haren borroka. «Nahiago dut heriotza, miseria eta kutsadura baino».

Zirriborro bat eta askatzeko hiru korapilo

+ Laurent Fabius Frantziako Atzerri ministroak eta COP21 goi bilkura presidentenak itunaren zirriborroa aurkeztu zuen atzo, baina onartu du oraindik hiru gai korapilatsu dituztela adosteko: herrialde aberastuek eta txiroek hartu beharreko erantzukizunak, itunaren beraren «anbizio maila»,

eta klima aldaketari egokitzeko garatzeko bidean diren herrialdeen finantzaketa. «Aurrerape- nak egin ditugu, baina lan asko geratzen zaigu aurretik», adierazi du Fabiusek.

Negoizazioen azken txanpara iritsi dira COP21 goi bileran bildutako agintariak; ostiralean 18:00etarako dira iragartzeko- ko klima aldaketari aurre egiteko ituna. Haatik, hasierako hiru desadostasun nagusiak kamusteke jarraitzen dute. Edonola ere, hainbat puntu findu di-

tuzte; esate baterako, gendetasunaren, transferentziaren eta klima aldaketaren eraginei aurre egiteko neurrien inguru-koak.

Fabiusek hitzetan, «azken testua» ez bada ere, negoziazioetan hartzen ari diren konpromisoak erakusten ditu. «Orain erantzuteko dauzkagun galde- ra nagusietan jarri behar dugu arreta». Itunean hartutako konpromisoak herrialde guztien- tzaiko bete beharrekoak izango diren ere adostu beharra dute.

ABENDUAK 10 OSTEGUNA
18.30>20.30 Jendeaurreko konferentzia:

BDS MUGIMENDUA,
PALESTINAKO HERRIAREN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BORROKA BAKETSUAREN HISTORIA GLOBALA

BDS MOVEMENT
FREEDOM JUSTICE EQUALITY
LIBERTAD JUSTICIA IGUALDAD
ASWANASUNA JUSTIZIA BEREKINAGINA
LIBERTÉ JUSTICE ÉGALITÉ

MUGIMENDU GLOBALA
BOIKOTERAKO, DESINBER-
TSIOETARAKO ETA ZIGORRE-
TARAKO KANPAINAREN ALDE

DONOSTIA

MIRAMAR JAUREGIA | JULIO CARO BAROJA ARETOA

Riya Hassan (Ertipako BDS) | Ester Muñoz (RESCOP) | Muhammed Desai (Hego Afrikako BDS) | Pedro Ferreracio (Amerika Latinko BDS)

Mundubat | pausu media